MUNGIA
UDALA

Lagun agurgarria:

Aurtengo AMAtxu Saria (XIII. Edizinoa) datorren **domekan, maiatzaren 3an**, emongo dogu. Aurton saritu gura doguz **azken 15 urteetan udako hileetan Saharako umeak hartzen dabezan familiak.**

Programa horren bidez, Mungialdeko familiek euren etxeetan, garragarrilean eta abuztuan, hartzen dabez Tindufeko persona iheslarien kanpamenduetan bizi diran umeak. Horrela, umeek ez dabe jasan behar udan besamortuan egiten daben beroa. Ganera, Euskadin dagozan tartean osasun-azterketa egiten jake eta beharrezkoa dan kasuetan tratamendua jarri bere bai. Hile horreetan umeen elikadura kanpamenduetakoa baino osoagoa izaten da eta indarra hartzen dabe etxera bueltatu behar diranerako.

Sariaren bidez **eskerrak emon gura deutseguz umeak hartzen dabezan familiei. Eskertu gura deutseguz Saharako herriak bizi daben egoerearen aurrean konpromisoa eta borondatezko inplikazinoa adierazotea, baita alkartasuna, dedikazinoa eta jartzen daben gogoa.** Jakingo dozuenez, Saharako herriak lau hamarkada daroaz basamortuan, ahal daben moduan, bizitzen. Herri moduan jagokon lurra eta garatu ahal izatea ukatu egin jakolako, muturreko egoeran bizi behar dau.

Familia horreek guztiak egiten daben behar isilagaz batera, **Txomin Aurrekoetxeak** egiten daben behar etenbakoa bere aitortu gura dogu. Txominek urte asko emon ebazan Saharako herriaren eta Euskal Herriaren arteko hartu-emona lantzen. Horrez gain, NBEren aurrean demandatu eban Bake Plana aplikatzea eta Saharako herriak daukan autodeterminaziorako eskubidea.

Ekitaldi nagusia **13:15ean hasiko da** Mungiako Landesa Etxe-Taldeko plazan (San Jose Etxe-Alai egoitzaren atzeko aldean). Saria emon ostean, luntxa egongo da.

Etorriko zaralakoan, besarkada handi bat.

Estimada amiga, estimado amigo:

El próximo **domingo día 3 de mayo**, tendrá lugar la entrega de la XIII Edición de AMAtxu Saria. Este año queremos premiar a **todas las familias que, desde hace 15 años, acogen en sus casas a niñas y niños saharauis, durante los meses de verano.**

A través de este programa, las familias de Mungialdea reciben en sus hogares, durante los meses de julio y agosto, a niñas y niños que viven en los campamentos para personas refugiadas de Tindouf. De esta manera se evita que tengan que sufrir las altas temperaturas que se dan en el desierto en estos meses tan calurosos, a la vez que aprovechan su estancia en Euskadi para realizar chequeos médicos y, si es necesario, someterse a tratamientos. Durante estos meses, la alimentación es mucho más completa que la que tienen en los campamentos y esto les aporta fuerza extra para regresar a sus hogares.

A través de este premio queremos **agradecer a las familias de acogida su compromiso e implicación voluntaria, así como la solidaridad, dedicación y entrega ofrecidas ante la situación de adversidad que vive el Pueblo Saharaui**, que lleva más de cuatro décadas sobreviviendo en el desierto, en condiciones extremas, y al que se le ha negado su territorio y desarrollo como nación.

Y junto al trabajo silencioso de todas estas familias, reconoceremos también la tarea incansable de **Txomin Aurrekoetxea**, que trabajó durante décadas para estrechar lazos entre los pueblos Vasco y Saharaui y exigió ante la ONU la aplicación del Plan de Paz y Autodeterminación del Sahara.

El acto de entrega de la AMAtxu dará **comienzo a las 13:15 horas**, en la plaza Landesa Etxe-Taldea de Mungia (detrás de la Residencia San Jose Etxe-Alai) y tras el mismo se ofrecerá un lunch.

Esperando contar con tu presencia, recibe un fuerte abrazo.

Mungian, 2015eko apirilaren 22an.

ALKATEA
Igor Torrontegi Goikoetxea

Mungin geure ikurrek